

Bilbon, 2001.eko azaroaren 30ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana Martija, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
A. Urrutia, Jagon sailburua,
B. P. Altuna,
C. M. Azkarate,
J. L. Davant,
A. Eguzkitza,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J.M. Satrustegi
eta P. Zabaleta
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
kudeatzailea eta
Patxi Salaberri eta
Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzordekideak 1. gaian.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, azaroa-
ren 30ean, elkartu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak eta laurdenetan eman zaio hasiera bilkurari. Ezkerreko zutabeen jasorik ageri dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute P. Charritonek, X. Diharcekek, H. Knörrek eta Ibon Sarasolak.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Urriko batzar agiririari ohar bat egin zaio. Ibon Sarasola jaunak helarazi du, idatziz. Aginduzko hitza dela eta, hartutako erabakian “juramentu” hitza sartu zen adibidea ematerakoan. Horren orde “zina” behar zuen. Horrela zuzenduko da agiria. Beste oharrik gabe, ontzat eman da delako agiria.

1. Hizkuntza arauak

Onomastika: Nafarroa Behereko Herri Izendegia-ren lehen zerrenda (Garaziko eskualdeari dagokiona)

Hiztegi Batua: abonagarri-agertze hitz-zerrendako adarmotz-en idazkera erabakitzea.

Hitz honen idazkerari buruzko erabakia irailean mahai gainean utzi zen ere. Kontua da, hitz elkartuen idazkerari buruz Euskaltzaindiak emandako arauak hitz hori *adarmotz* gisa nahiz *adar-motz* bezala ematea eskatuko luke. Beraz, era horretako hitz elkartu guztiei bina sarrera eman beharko litzaizkieke. Hori hiztegi-ikuspegitik ez da oso itxurazkoa. Beste irtenbidea, berriz, araua aldatzea litzateke. Dilema horren aurrean, euskaltzainek egokiago ikusi dute horrelakoetan bi formak ematea beti. Beraz, sarrera guztiak sistematikoki zuzenduko dira bikoteka emanaz.

Hiztegi Batuaren bigarren itzuliko prozedura erabakitzea.

Agindu bezala, Zuzendaritzak prestatutako testu bat aurkeztu zaie euskaltzainei. Idazkariak irakurri du eta, ondoren, eztabaidari ekin zaio.

Azkarate andreak bere harridura erakutsi du: Lekeition kontu honetaz beste zer-bait onartu zen. Harrigarri egiten zaio hogeita lau euskaltzain izanda, nolatan leporatzen zaion lanaren ardura nagusia euskaltzain oso ez den bati. Bestalde, aurkezten den prozeduran oharrek behar duten "galbahea" deusezten da, Euskara Batuko batzordea deuseztua gelditzen den neurrian. Lekeitioko jardunaldietan batzorde horri eginkizun ia monografikoa hiztegi batua zen. Ez dago ados, inondik ere, proposatzen denarekin.

Eguzkitza jauna, aldiz, batzorde hori desagertzearen alde agertu da.

Azkarate andreak gehitu du batzorde bat suntsitzea bezalako erabakiak barne jardunaldietan hartzen direla. Horrenbestez, ez dela zuzena, ohiko bilkura batean horrelako lanetan hastea.

Urrutia jaunak erantzun dio Euskara Batuko batzordea desagertzeak ez duela kezkatzen, prozedura arintzea lortzen bada horrela, hori baita helburua. Zirkunstantziak aldatu direla dio.

Eztabaida luzatu da eta parte hartu dute zenbait euskaltzainek, Oihartzabal, Kintana, Zabaleta, Goenaga eta Salaburu euskaltzain jaunek, besteak beste. Patxi Zabale-tak dio testua pertsonalizatuegia dagoela, eta hori ez dela on. Berak ere galde egiten du ez ote litzatekeen egoki Euskara Batuko batzordeari eustea. Gauzak horrela, gaia mahai gainean uztea proposatzen du. Azkenik, euskaltzainburu jaunak galde egin du ea nork ekarriko dituen aldaketak eta noizko. Egin beharreko oharrek egiteko epe gisa hilaren 14a proposatu da eta hala onartu. Horrenbestez, iristen diren oharrekin prozedura finkatuko duen testu bat onartuko du hurrengo bilkuran.

2. *Nere Altunari eta Rikardo Badiolaren 25 urteak Euskaltzaindian*

Ordu biak laurden gutxitan bilera eten egin da, iragarririk zegoen bezala, Nere Altunak eta Rikardo Badiolak Euskaltzaindiaren zerbitzuan egindako hogeita bost urteak direla eta, ekitaldi xume bati hasiera emateko. Euskaltzainez gainera, Euskaltzaindiko langileak eta zenbait batzordetako kideak ere batzar gelan bildu dira. Bien lana gorai-patu eta eskertu du euskaltzainburuak eta oroigarri gisa, zilarrezko domina eman die bakoitzari. Ondoren, Badiola jaunak, idatzirik zuen esker onezko hitzalditxo bati ekin dio, bere inguruan ibili direnen izenak banan-banan gogoratuz eta denei eskerrak emanaz.

Ordu bietan denak bazkaltzera joan dira.

Arratsaldeko bilkura lau eta erdietan hasi da.

Hiztegi Batua: agi-ahozuri zerrenda onartzea

Andres Iñigo jaunaren oharrek izan dituzte lehenbizi euskaltzainek aztergai. Hasierako zerrendatik zenbait erretiratu egin ditu. Beste zenbait jadanik aztertuak eta erabakiak dira. Honako hauek izan dira ontzat emandakoak:

Ahal adinbat eranstea onartu da, *ahal bezain* eta *ahal bezainbat*-en parean.

Ahizperdi hitzari *Naf.* marka gehitzea ere onartu da.

Aetz hitza sartu gabe dago aurreko zerrendan. Dena dela, geroago herritarren izenak eta holakoak sistematikoki sartu beharko direnez, ordurako gogoan hartzeko eskatu du ohargileak.

Eguzkitza jaunaren oharrak aztertu dira ondoren. Honako hauek izan dira kontuan hartu direnak:

Aginterrri-ren adiera azaltzeko ematen diren ‘erreinua, erresuma’-ren ondoan ‘estatua’ gehitzea onartu da.

Aglomeratu: *Tekn.* dela esango da. Bestalde, kategoriari dagokionez, *da* motako aditza, izena eta izenondoa ere izan daitekeela adieraziko da.

Aglutinazio hitzari *Gram.* marka gehitzea onartu da. Hala ere, aglutinatzaile hitza sartu ala ez arlokako lantaldearen esku uztea hobe dela iritzi diote euskaltzainek

Aguantatu: *Heg. Herr.* ‘iraun, eraman, jasan, eutsi’ gisa ematea onartu da.

Agozil: *Herr.* markarekin emango da, besterik gabe.

Agudezia: batez ere *Ipar. Zah.* oharrarekin ematea onartu da.

Agudoki ez ematea onartu da.

Ahal-en azpisarrera gisa *ahala eman* sartzea ontzat eman da.

Ahaleginez/laz zalantza planteatzen du bere oharrean Miren Azkaratek. Arazo hori hiztegiakoa baino areago gramatikakoa denez, eta bestalde, esapide hori guztiz automatikoa denez, kentzea erabaki da.

Ahantzura dagoen dagoenean uztea erabaki da.

Ahapekalahapetik dauden bezala uztea erabaki da.

Ahatebeltz ala *ahate beltz* ote den, kontua gero argitzekotan utzi da.

Aho-barrunbe sartzeko eskaria ere ez da oraingoz ontzat eman. Zerrenda bereziak lantzen direnean ikusiko da termino hori sartu beharrekoa den ala ez.

Azkenik, *ahosabai*, eta ez *aho-sabai* proposatzen du ohargileak. Hala onartu da.

3. Eskuarztekoak

Lamiategi egitasmoa

Testu garaikideen datu basea izan nahi duen Lamiategi egitasmoa aurkeztu du Pruden Gartzia bibliotekariak. 1990-2000 urte arteko testuak biltzea du helburu. Guxtienez, lau mila testu bilduko dira baina sei edo zazpi milara ere irits daitezke. Oraingoz testuak bilduko dira, modu digitalean. Geroago erabakiko da nola jokatu bildutako corpus horrekin, beti ere hizkuntza ikerketa delarik helburua. Hitzarmen berezia sinatuko da agente desberdinen artean (Euskaltzaindia, Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Itzultzaileen Elkarte eta Euskal Editoreen Elkarte) eta behin finantzabidea ziurtatuta abian jarriko da proiektua.

“Euskaltzaindiaren Alde” fundazioa

Azken hilabeteetan egindako gestioen eta une honetako egoeraren berri ematen duen txostena aurkeztu zaie euskaltzainei: enpresekin izandako harremanak, alderdi politikoekin eta erakunde publikoekin izandakoak eta abar. Behin bostehun milioitara iritsiz gero fundazioa abian jartzea espero, bazkide berriak bilatuz.

Herri Aginteeikiko hitzarmena

Euskaltzainburuak azaldu du abenduaren 3an bilduko dela Herri Aginteeikiko Hitzarmenaren jarraipen batzordea. Gai zerrendaren berri eman zaie euskaltzainei.

Aldaketak Literatura batzordean

Literatura batzordean izango den aldaketaren berri eman zaie euskaltzainei Juan Mari Lekuona batzordeburuaren idatzi baten bidez: Karlos Otegik, arrazoi pertsonalengatik, uzten du batzordea eta haren ordez Iratxe Gutierrezen proposamena egin da.

*Azken ordukoak**Nafarroako arazoa*

Pegenaute jaunaren azken gutuna banatu zaie euskaltzainei eta honen erantzuna ere adostu da. Oraingoan idatziz joango da erantzuna, beste gabe. Hurrengo asteartean bertan erregistroan sartuko da.

Durangoko azoka

Durangoko euskal liburu eta disko azokaren hasiera ekitaldirako gonbitaren berri eman zaie euskaltzainei. Abenduaren zortzian, bestalde, Juan San Martin jaunari "2001 Durangoko argizaiola saria" emango zaio eta ekitaldi honetarako gonbita ere luzatu zaie euskaltzainei.

Gutuna

P. Goenagak, aurreko bilkuran zabalduko gutunari erantzunez euskaltzainburuari zuzendutakoa ere banatu zaie euskaltzainei.

Eta zazpiak laurden gutxitan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga